

OIARTZUNGO BERTSOLARIA

Joxemari ARANALDE

Ez zen beraz zaharrez hil gure oiartzuarra, baldin eta munduan urte asko jota hiltzea baldin bada behintzat zaharrez hiltzea. Asko bizi-tuta eta asko ikusita hiltzea balitza, berriz, zaharrez hil zela esan daiteke gure gizona.

12 urterekin harrapatu zuen 36ko gerra beltzak. Eta "Gerrako bonbek etxerik gabe utzi gintuan" dio berak. Hori moxtadea familia pobre batentzat! Ahulari bai ahulgarria sortu! Etxea puskatuta eta familia ere puskatuta gelditu ziren. Batera eta bestera sakabanatu behar izan zuten etxe-koak. Garaiz hasi zitzaigun, beraz, ikustekoak ikusten, 64 urte bizi-tuta joan zitzaigun bertsolaria.

Erretereria famatu, ez da lehenengo aldia auzoherritar batekin natorkizula zuen OARSO aldizkari honetara. Ez ezazula pentsa, gero, zurerik guttiesten dudalako denik. Ez da horrelakorik. Izatekotan ere, zureen ezagutza faltaz liteke, baina ez guttiespenez.

Hala ere, Erretereria Xenpelarren, zuregan sortua ez izan arren nik gaur dakartzudana, herriko seme-alaba asko al duzu Jose Joakin Mitxelena baino zutarragorik? Eta ez dizut galdetzen, zure izenak salatzen omen duenez, inoizko zergarengatik Oiartzun jabe omen zitzaizulako eta zu bere zinduelako auzoherritar horrek. Bestelako lotura bat da nik zure eta "Oiartzungo bertsolaria" deitu haren artean ikusten dudana eta zerga kontuekin zerrikusirik ez daukana.

Baietz aurkitu nik, Xenpelarren herri, txokoren bat zugar "Oiartzungo bertsolaria" ren mira daukanik? Baietz izan soziedaderen bat edo tabernaren bat edo bestelako elkarteren bat edo bertsozaleren bat baino gehiago oiartzuarraren "harkaitzeko" uraren egarriak dagoenik? Egari hori sumatu ustetan nator ni gaur zuregana. Erretereriako OARSO, zure auzeritar batekin. Eta egia baldin bada, Juan Mari Lekuonak zioenez, "Oiartzungo bertsolaria" hiltzean Euskal Herriak galdu zuela bertsolaria, bihalakoz da egi Erretererientzat.

Ez dizut kontatu behar haundirik, irakurle, gure gizonaren bizitzarik, lehenetik ere bai bait dakizu zerbait baino gehiago. Oiartzun izan zuela bere sorterri badakizu. Zure auzoherritar famatu horri Maalena bezpera-bezperan jaio zitzaion bere seme ospetsua, uztailaren 20ean, 1924garren urtez. Aurten 67 beteko zituen bada, bizi izan balitz, 1988ko abenduaren 3an joan zitzaigun Jose Joakin Mitxelena zenak. Horiexek dituzu haren bizialdiaren mugak.


Miseria horretako egoeratik peza batzuen bila abiatzen zaigu Mitxelena. 9 kilometrotatara dauka lantegia, eta oinez egiten du joan-etorria Luzuriagatik. Eta guztia 9 erreal irabazteko. Ez dirudi gauza haundia; baina gutxiagorekin beharko zuen ordu horiek berak etxeko lanetan pasa izan balitu, etxe haietan lana sobrate bait zen, baina dirua eskas.

Bederatzi kilometro oinez, bederatzi ordu lan, bederatzi erreal soldata,... bederatziko asko, baina alderdi gutxi zen hori. Ez ote zegoen diru-iturri oparagorik? Belarrietara hotsak helduak zekizkioken diru errezagoarenak. Ez zen alperrik muga-herrien mugako, ez eta mugalarien giroko, lehorrez nahiz itsasoz. Epoka, bestaldera, ez zen aldrebesa _gerraondoa_, eta lanlekuak eskaintzen zion aukera ere egokia zen. eta gauezko lanari ekiten dio oiartzuar gazteak. "Gero kontrabandoan saiatu nintzen bizimodua ateratzen".

Gauezko lanak ez dakigu egunezko lotsarik utzi zion, baina ez dirudi diruz gehiegi hornitu zuenik, diruaren hotsak beti kilimatu izan zuen gure Mitxelena. Ondorenean beste lan gogor bati heltzen dio bertsolariak. Euskal Herrian, mugaz bi aldeak barne, hain ezaguna izan den Atamitx jatetxea ideki zigun oiartzuarrak. Bere emazte Bittori eta biak izan dira urte luzez erretegi horretako zutabe. Atano Xgarrenaren familiarekin batera jarri zuen jatetxe honek arrakasta haundia izan zuen Euskal Herrian. Ez da dudarik lan berri honetan asmatu zuela bere lagunekin. Eta inori bererik ukatu gabe, esan beharra dago Mitxelenak bazituela horretan merituak. Zenbat atzeurre eta zenbat tratu modu eta zenbat ibili ez ote zuen egin bere peugeot familiar zahar harekin? Oiartzundik Pasairako eta Donostiako bideek hizketan balekitez!



Mitxelenaren eta beraren sozioen meritua, bi familia haien arteko harremanen ederra da, dudarik gabe.



Baina Mitxelenaren eta beraren sozioen meritua ez zen bakarrrik izan jabetxe hura aurrera ateratzea. Bada besterik. Bi familia haien arteko harremanen ederra da beste merituetako bat dudarik gabe. Hainbeste urtean elkarrekin haiek bizitu ziren bezala bizitzeak, tartean diru kontuak ere badirela, esan nahi du zerbait. Ikusi egin behar zen Jose Joakinen eta Bittoriren harremana atanotarren haur haiekin! Inoiz berekin ohizko otorduren bat egin izan zuenak badaki nolako grazia eta gozoa zeuden beraien artean. Ez da nonahi ikusten den zerbait. Eta horretan ere bazukeen meriturik gure gizonak. Kabira haundikoa zen Joxe Joakin..

Atamitxen bukatu ziren "Oiartzungo bertsolaria"ren lanak eta lantokiak. Han segitu zuen azkenak arte, baina lanez guztiz arinduta zebilen azken denboretan. Eta hango lanak utziala hasi zen berriz bere gogo guztizko zereginean: bertsotan. Beste lan guztiak beharrak eraginak zitzakeen. Hau barrengo grinak eragiten zion. Berez horixe bai genuen Mitxelena: bertsolaria.

Bazirakeen, eta badirake, bertsolari bertsolariorioak, baina huraxe bezalakorik! Noiz eta non eta nola eta zenbat ez genuen kantatzen ikusi eta entzun? Beste guztiak aspertuta ere, lagun nahiz entzule, bera ez zen aspertzen, ez eta agortzen. Perea gutxiagoko bertsolaririk ez dut ezagutu kantatzeko. Ez zuen ordu txarrrik.

Baina bertsolari oparoa zela esanarekin ez dugu guztia esan. Ezta garrantzizkoena ere. Emaile oparoa zelaren ondoren, emaile ona zela esan behar da, bertsolari haundia, betea, azkarra, bere garaikide guztiek eta gazteagoek ere aitortu izan duten bezala. Gogoan daukat nolako laudorioak egin zizkidan behin Mitxelenarengatik azken urte hauetan izan dugun txapeldunik gazteenak. Azpeitiarrak bere auzoan. Landetan, kantatu zuen oiartzuarrekin eta harrituta zegoen haren etorritz eta sendotasunez. Bai, denok dakigu zer bertsolari puska joan zitzaigun Mitxelena hil zenean.

Bertsolariak utzi duen zuloa haundia bada ere, gizonak utzi duena ez da txikiagoa, gizon ez bait zen nolana hiko gure Joxe Joakin. Gizon gozoa zen Mitxelena, lagunartekoa, humoretsua, ondo hitzegina, eskuzabala. Bada Oiartzunen Hospital edo zahar-etxe bat horretaz zerbait dakiena. Sobranteak izango ziren, baina ez nolana hiko sobranteak. Atamitxetik bere peugeotean eramaten zituenak. Beharra zer zen aspaldi ikasia zuen eta ahal zuenean ahal zuena eramanez han izan ohi zuten hospitalean. Karidadea zer zen bazekien Joxe Joakinek. Bada bertsolaririk ere haren esku zabalari muina baino zerbait gehiago zor dionik. Eta ez dakit muinik ere ordainetan jaso zuen. "Goseak nengoen eta jaten eman zenidan" eta haiek, inork bada eta, entzunda sartuko zen zeru aldean. Inoren ezbeharrak minberatzen zuena zen Mitxelena eta inoren ongi-izateak poztzen zuena. Ez ziozun parrrik eta burlarik sumatuko pertsona bajuarentzat. Horrelakoxe gizon klasea genuen gure bertsolaria.

Eta bere herria eta bere herritarrak horrela maite zituen gizon hau maitea zuen herriak. Harek sarrerarik ez zuen leku haundirik ez zen izango Oiartzunen. Nik Lekuonatarrekin eta sumatu izandu nuen inoiz, eta nolako ixtimazioa ziotelako gero! Berak ere ez zeduzkan saltzeko. Hura begirunea eta mirespena Don Manuel Lekuonari eta haren iloba Joan Mariri ziena! Gustoa ematen zuen haien artean gertatzeak. Zerbaiteagatik isuri zituen Joan Mari olerkari finak malko haiek bere bi begietatik Oiartzungo sakristian lagunaren hileta-mezaren ondorenean.

Malko horien omenarekin bukatu nahi dut nik ere, errederiar bertsozale. "Oiartzungo bertsolaria"z idatzi dutan zeratxo hau. Jainkoak zerua diola Jose Joakin Mitxelena haundiari.



Berez, horixe bai genuen Mitxelena: bertsolaria.

